

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

**DONOSTIAKO UDALA**

**Berdintasun Bulegoa**

*Iragarkia*

2015eko martxoaren 6an Tokiko Gobernu Batzarrak oinarri hauek onartu eta argitaratzea onartu zuen.

**IKERKETA BEKAREN OINARRIAK**

*«Donostiako memoria feminista, 11 historiaren bidez».*

**ZIOEN AZALPENA**

Mendebaldeko kultura guztietan, ohiko jardunbidea izan da emakumeak eta emakumeek gizarteari eginiko ekarpena ezkutzea. Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztien aurka egiteko beharra, baita ezkutatzearen aurka egiteko beharra ere, mugimendu feministen aldarrikapen historiko bat izan da XIX. mendeaz geroztik. 1979. urtean, Nazio Batuen Erakundeak behar hori bazela aitortu zuen, eta halaxe jasota geratu zen Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioan.

1996. urtetik, Donostiako Emakumeak eta Hiria Foroak hainbat jarduera antolatu ditu gune publikoetan genero ikuspegia sustatzeko: udalaren kale izendegian bi sexuak bidezko eran agertzea aldarrikatu du, «puntu kritiko» deritzen hiriko gune arriskutsuak aztertu ditu eta genero ikuspegia sartu du hirigintzan.

Donostiako Udalak, bestalde, 2014ko apirilaren 25ean III. Berdintasun Plana onartu zuen. Plan hartan, nahitaezko lan ildotzat hartu zuen emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa sustatzea, eta, zehazki, 5.2 puntuan, Udalak konpromiso hauxe hartu zuen: «Emakumeek hiriari eginiko ekarpenak berreskuratuko duten proiektuak bultzatzea». Testuinguru horretan jarri zen abian ikerketaren ildoak, eta Berdintasun Atalak, jadanik, baditu horren bi aurrekari: 2000. urtean Emakume donostiarrek XIX. eta XX. mendeetan izeneko liburua argitaratu zuen, eta 2013an lehenengo ikerketa beka antolatu zuen, emakumeak eta danborrada gai hartuta –lan horren emaitzak Emeki-emeki berdintasunezko danborradarantz izenburuarekin argitaratu dira–.

Bigarren beka honen bidez, asmoa da emakumeek eta mugimendu feministak hiriari egindako ekarpenetan sakontzea, ekarpenok aitortzea eta gune publikoan ikusgai jartzea.

2016an, Europara eta mundu guztira zabalik egongo da hiria, kulturaz gozatzeko. Hori dela eta, emakumeen eta mugimendu feministaren ekarpenak ere erakutsi behar ditu, eta itzalean egon dena argitara ekarri, munduarekin partekatze hiri berdintasunaren alde egindako lana. Beka hau, zalantzarik gabe, ekarpen garrantzitsua izango da helburu hori lortzeko.

**AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

**Negociado de Igualdad**

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 6 de marzo de 2015 adoptó aprobar y publicar estas bases:

**BASES DE LA BECA DE INVESTIGACIÓN**

*«La memoria feminista de Donostia/San Sebastián a través de 11 historias».*

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La invisibilización de las mujeres y de sus aportaciones a la sociedad ha sido una práctica corriente en todas las culturas occidentales. La necesidad de actuar contra todas las discriminaciones hacia las mujeres, incluida la invisibilización, ha sido una reclamación histórica de los movimientos feministas desde el siglo XIX. En el año 1979 las Naciones Unidas reconocen esta necesidad que queda plasmada en la «Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer».

Desde 1996, el «Foro Mujeres y Ciudad» de Donostia/San Sebastián ha llevado a cabo diferentes actividades para impulsar la perspectiva de género en el espacio público, tales como la reivindicación de una representación equitativa de ambos sexos en el callejero municipal, el análisis de espacios urbanos peligrosos llamados «puntos críticos», y la introducción de la perspectiva de género en el urbanismo de la ciudad.

Por su parte, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián aprobó el 25 de abril de 2014 su III Plan de Igualdad, en el que se establece como línea de trabajo imprescindible la promoción de la participación sociopolítica y económica de las mujeres y, en concreto, en el punto 5.2, el Ayuntamiento se compromete a «impulsar la elaboración de proyectos que rescaten la aportación de las mujeres a la ciudad». Es en ese marco donde se ubica la puesta en marcha de una línea de investigación, de la que el departamento de igualdad ya cuenta con dos precedentes: la publicación, en el año 2000, del libro titulado «Mujeres donostiaras en los siglos XIX y XX», y la convocatoria en 2013 de la primera beca de investigación sobre las mujeres en la tamborrada, cuyos sus resultados han sido publicados bajo el título «Paso a paso hacia una tamborrada en igualdad».

Mediante esta segunda beca, la intención es profundizar en las aportaciones de las mujeres y del movimiento feminista a la ciudad, reconociéndolas y haciéndolas visibles en el espacio público.

El próximo año 2016, esta ciudad será un lugar abierto a toda Europa y el mundo para el disfrute de la cultura. Por ello, ha de mostrar también las aportaciones de las mujeres y del movimiento feminista, sacando a la luz lo que ha permanecido en la sombra, para compartir con el al mundo el trabajo realizado por la igualdad en la ciudad. Esta beca debería ser, sin duda, una importante aportación para lograr ese objetivo.

### 1. Oinarrien xedea.

1. Oinarri hauen helburua da 2015ean «Donostiako memoria feminista, 11 historiaren bidez» gaiari buruzko ikerlan bat egiteko beka zein baldintzatan emango den arautzea.

### 2. Ikergaia.

Ikerketa honen bidez, emakumeek eta mugimendu feministak hiriko bizimoduari egindako ekarpena aztertuko da, 11 historia adierazgarri bilduta. Historia horiek hainbat alderdi eman behar dituzte ezagutzera, hala nola emakumeen bizimodua, taldeen historiak eta berdintasunaren arloan edota emakumeen eskubideak lortzeko bidean izandako gertaera historikoak.

Azterketa horren azken produktu gisa, emaitzak nola komunikatu eta Donostiako gune publikoan ikusgai nola jarri proposatuko da, betiere 2016ko Europako kultur hiriburutzaren espirituarekin bat etorritik (bizikidetzarako kultura, herritarren protagonismoa, eraldatzeko kultura).

Memoriak edozein formatutan jaso daitezke, baina kontuan izan behar da gorde egingo direla, udal dokumentu eta artxibo gisa erabili ahal izateko.

Horrenbestez, hauexek dira bekaren helburuak:

a) Emakumeek eta mugimendu feministak hiriko bizimoduari egindako ekarpenak jasotzea, 11 historia adierazgarri bilduta. Historia horiek hainbat alderdi eman ditzakete ezagutzera, hala nola emakumeen bizimodua, taldeen historiak eta berdintasunaren arloan edota emakumeen eskubideak lortzeko bidean izandako gertaera historikoak.

b) Ahalik eta xeheen proposatzea hiriko 11 historia horiek nola komunikatu eta ikusarazi hiriko alde batean baino gehiagotan, 2016ko kultur hiriburutzaren espirituarekin bat. Horregatik, informazio xehea eskatuko da aurrekontuaz, proposatutako materialez, ikerlanaren emaitzak ezagutarazteko proposatzen diren hiriko lekuez eta abar.

### 3. Ikerketaren subjektua.

Pertsona fisikoak aurkez daitezke, norbanakoak zein taldeka, oinarri hauek araututako baldintzetan.

Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (2003ko azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) 13.2 artikuluan xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonak ezingo dituzte jaso beka honen onurak. Taldeen kasuan, ez taldeak ez bertako kide bakoitzak, ezin izango dira adierazitako debekuetan sartuta egotea.

Ezingo dute beka jaso Donostiako Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazteko hasitako prozeduretan daudenek, ezta Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeko dituztenek ere, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak gerorata edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

### 4. Aurkeztu beharreko agiriak.

— Lanaren aurreproiektua: 15-20 orrialde izan behar ditu, eta titulua, ikerlanaren planteamendua, helburuak, lan metodologia, kronograma, baliabideak eta bibliografia jaso behar ditu.

— Proiektuaren bi kopia paperean aurkeztu behar dira, eta beste bat gehiago euskarri digitaletan.

— Epaimahaiak proiektua norena den ez jakiteko, aurreproiektua idaztean ez da eskatzailearen edo eskatzaileen izena jarriko.

### 1. Objeto de estas bases.

1. Las presentes Bases tienen por objeto la regulación de las condiciones de concesión de una Beca para la realización de un trabajo de investigación durante el ejercicio 2015 sobre el tema «La memoria feminista de Donostia/San Sebastián a través de 11 historias».

### 2. Tema de investigación.

Mediante esta investigación, se analizarán las aportaciones de las mujeres y del movimiento feminista a la vida de la ciudad, a través de la recogida de 11 historias representativas. Estas historias deben dar a conocer las vidas de las mujeres, historias de colectivos, acontecimientos históricos relativos a la igualdad y/o a la consecución de derechos de las mujeres.

Como producto final de ese análisis, se ha de proponer formas de comunicar y visibilizar los resultados en diferentes lugares del espacio público de la ciudad de Donostia/San Sebastián, manteniendo la coherencia con el espíritu de la Capitalidad Cultural Europea 2016 (cultura para la convivencia, protagonismo de la ciudadanía, cultura para transformar).

El formato de recogida de estas memorias es libre, pero es preciso tener en cuenta que se guardará para su posterior documentación y archivo municipal.

Así, los objetivos de la Beca son los siguientes:

— Recoger las aportaciones de las mujeres y del movimiento feminista a la vida de la ciudad, a través de la recogida de 11 historias representativas. Estas historias deben dar a conocer temas como las vidas de las mujeres, historias de colectivos de mujeres, acontecimientos históricos relativos a la igualdad o a la consecución de derechos de las mujeres.

— Proponer, el máximo detalle posible la comunicación y visibilización de estas 11 historias en la ciudad, en consonancia con el espíritu de la capitalidad cultural 2016 y en diferentes zonas de la ciudad. Por ello se pedirá la información detallada sobre el presupuesto, materiales propuestos, ubicaciones de la ciudad en la que se proponga dar a conocer los resultados de la investigación, etc.

### 3. Sujeto de la investigación.

Podrán presentarse a la beca personas físicas, a título individual, o agrupaciones de personas físicas en los términos regulados en las presentes bases.

No podrán ser beneficiarias de estas becas las personas o entidades en quienes concurra algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* de 18 de noviembre de 2003). En el caso de agrupaciones de personas físicas, ni la agrupación ni ninguna de las personas que la integren podrá estar incurso en dichas prohibiciones.

Tampoco podrá concederse la beca a las personas que se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián o entidades, ni aquellas que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento, hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

### 4. Documentos a presentar.

— Anteproyecto del trabajo: 15-20 páginas, donde se incluirá el título, el planteamiento del trabajo de investigación, los objetivos, la metodología de trabajo, el cronograma, los recursos y la bibliografía.

— Se entregarán dos copias del proyecto en papel, y otra más en formato digital.

— Con la intención de mantener el anonimato al tribunal, en la redacción del anteproyecto no se pondrá nombre alguno de la persona o personas solicitantes.

– Eta beste gutun-azal batean:

– Izenburua, eskatzailearen harremanetarako datuak, NANaren edo AIZren fotokopia eta eskatzailearen curriculum labur bat.

– Pertsona fisikoek osatutako taldeen kasuan, taldeko kide guztiek sinaturiko hitzarmena, gutxienez honako puntuak jasoko dituen: taldea osatzen duten kideen identifikazioa, taldeari dagozkion betebeharrei erantzuteko agente nahikoa izango duen ordezkari baten izendapena, kide bakoitzak hartzen dituen exekuzio konpromisoen adierazpena (eskatutako bekaren aurrekontuaren %-tan adierazita), jakinarazpenak egiteko helbidea, taldearen ordezkariaren izenean egongo den kontu korrontearen zenbakia, eta preskripzioko 4 urteko epea igarotzen den arte taldea ez desegiteko konpromisoa, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluek ezarritakoaren arabera. Horrez gain, NANaren edo AIZren fotokopia eta taldeko kideen curriculum laburra.

– Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, beka jasotzeko ez duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikulua jarritako batere debekurik dioena. Taldeen kasuan, taldeko kideetako bat ere debeku horietan sartuta ez egotearen adierazpena.

– Eskatzailearen edo eskatzaile taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpena, zerga bidezko betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udalaren Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkatela dioena.

– Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, zera dioena: helburu eta asmo honetarako bererako ez diola ezeren diru laguntza, laguntza, beka, sarrera edo baliabiderik eskatu inolako administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturi.

– Baimen bat, eskatzaileak beka hau kudeatzen duen organoari emana, beka eskatu duen pertsonaren identitatea jakiteko eta hark beka hau eskuratzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko bidea izan dezan Órgano horrek dagozkion administrazioan, dela baliabide elektronikoz, dela eskueran diren beste baliabide batzuek, administrazio publikoak dituen beste egiaztatze, kontrol eta ikuskatze eskumen batzuk eragotzi gabe horregatik.

Beka eskabideak erabat bete gabe edo erantsi beharreko agiri guztiak erantsi gabe aurkeztuz gero, falta diren agiriak aurkezteko edo den akatsa zuzentzeko eskatuko dio Donostiako Udalak dena delako pertsonari. Horretarako, hamar egun emango dizkio, gorabehera hori jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta ohartaraziko dio, orobat, hala egiten ez badu eskaerari uko egin diola joko duela, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42. artikuluan agintzen duen eran ebatzi eta gero hori.

Datu Pertsonalei buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea Organikoaren arabera erabiliko dira jasotako datuak.

##### 5. *Eskaerak aurkeztea.*

Eguna: hilabete izango da eskaerak aurkezteko, Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lekua: eskabideak helbide honetara bidaliko dira: Donostiako Udalak, Berdintasun Bulegoa, Okendo, 9, 2004 Donostia.

– En un sobre aparte:

– Título, datos de contacto de la persona solicitante, fotocopia del DNI / NIE y breve currículum de la persona solicitantes.

– En el caso de solicitudes presentadas por las agrupaciones de personas físicas, convenio firmado por todas las personas integrantes de la agrupación en el que figuren, al menos, los siguientes extremos: identificación de las personas que conforman la agrupación, designación de una persona representante con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que como persona beneficiaria de la beca corresponde a la agrupación, los compromisos de ejecución asumidos por cada participante (expresado en un % del presupuesto de la beca solicitada), designación de un domicilio a efectos de notificaciones, designación de un n.º de cuenta corriente a nombre de la persona representante de la agrupación y el compromiso de no resolución de la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción (cuatro años) a que se refieren los artículos 39 y 65 de la Ley General de Subvenciones. Asimismo, fotocopia del DNI/ NIE y breve currículum de las personas integrantes de la agrupación.

– Declaración responsable de no hallarse incurso o incurso en ninguna de las prohibiciones del artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, para la obtención de la beca. En el caso de las agrupaciones, declaración de que ninguna de las personas que la integran están inculpas en dichas prohibiciones.

– Declaración responsable de la persona solicitante o de las personas integrantes de la agrupación de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación municipal) y frente a la Seguridad Social.

– Declaración responsable de no haber solicitado o no haber sido concedida ninguna subvención, ayuda, beca, ingreso o recurso para el mismo objeto y finalidad procedente de cualquier Administración Pública o entes públicos o privados.

– Autorización, por parte de la persona solicitantes o de las personas integrantes de la agrupación, al órgano gestor de esta beca para la obtención, constancia o verificación en la Administración competente por medios electrónicos o, en su caso, por los medios que estén disponibles, de la identidad de la persona o personas solicitantes y del cumplimiento de los requisitos para la obtención de esta beca, sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tiene atribuidas la Administración Pública.

Si las solicitudes de beca no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación requerida, el Ayuntamiento de San Sebastián requerirá la presentación de la documentación omitida o la subsanación del defecto observado a la persona o grupo solicitante, concediendo, a estos efectos, un plazo de diez días a contar desde el día siguiente al de su notificación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los datos recogidos serán utilizados en base a la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

##### 5. *Presentación de las solicitudes.*

Fecha: el plazo de presentación de las solicitudes será de 1 mes a contar desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lugar: Las solicitudes se enviarán al Ayuntamiento de San Sebastián, Negociado de Igualdad, Okendo, 9, 2004 Donostia,

Horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1993 Legean adierazitako bideak erabil daitezke.

Gutun-azalean, gaia zehaztuko da: «Donostiako memoria feminista, 11 historiaren bidez» ikerketa beka.

#### 6. Hizkuntza.

Eskabideak EAEko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan aurkeztu ahal izango dira, eta ikerketa egiteko ere bi hizkuntzetako bat aukeratu ahal izango da.

Bekaren emaitza bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko da.

Bekaren emaitza bi hizkuntza ofizialetan jarriko da ikusgai.

#### 7. Hautaketa epaimahaia/batzordea.

Donostiako Udalak izendatuko du epaimahaia. Honela osatuko da:

– Donostiako Udaleko Berdintasun ataleko zuzendaria, edo hark izendatutako ordezkaria.

– Gizarte Zientzien eta feminismoen ikerketan aditu diren bi pertsona.

– Emakumeak eta Hiria Foroaren ordezkari bat.

– Donostiako Udaleko Berdintasun teknikari bat, idazkari tekniko gisa, ahotsa eta bozkarekin.

Hautaketa batzordeak libre du deialdia hutsik uztea, baldin eta irizten badio proposamen batek ere ez duela behar adinako interesik edo kalitaterik lortu.

Hautaketa Batzordeak, beharrezkotzat joz gero, txostenak eskatu ahal izango dizkie udal atalei.

#### 8. Hautagaiak aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak.

Hautaketa batzordeak bereziki baloratuko ditu eskatzaileak edo taldeko kideek ikerlanak egiteko duten jakintza, prestakuntza eta esperientzia; halaber, zehaztasun eta adierazpenerako gaitasuna, bekaren langaian jarduteko dituzten ahalbideak, eta ikerlanaren proposamenaren interesa eta ikuspuntua. Horretarako, balorazio irizpide eta puntuazio hauek hartutako ditu aintzakotzat hautaketa batzordeak:

A) Ikerlanaren kalitate orokorra: 70 puntu, gehienez.

– Ikerketa proiektuaren planteamendua (20 puntu, gehienez ere).

– Jasotzeko proposatu diren historiak erakusgarriak eta egokiak izatea (15 puntu, gehienez ere).

– Ikerlana argia eta bideragarria izatea, metodologia eta kronograma barne direla (15 puntu, gehienez ere).

– Ikerlanaren emaitzetan hiria ikusarazteko proposamenaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa, eta originaltasuna (20 puntu gehienez ere).

B) Ikerlana egingo duen pertsonak edo pertsonen emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza: 20 puntu, gehienez.

C) Ikerlanak euskaraz egitea: 5 puntu, gehienez.

D) Proposamena emakume batek edo emakume talde batek egina izatea: 5 puntu, gehienez.

Beti ere, proposamenak ikuspegi feminista edo generokoa barneratua izan behar du, eta irizpide baztertzaila izango da hori.

50 puntura ailegatzen ez diren proposamenak atzera botako dira.

mediante los medios habilitados por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Se especificará en el sobre el Asunto: beca de investigación « La memoria feminista de Donostia/San Sebastián a través de 11 historias «.

#### 6. Idioma.

Las solicitudes se podrán presentar en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la CAE, al igual que la realización del trabajo de investigación.

El resultado de la beca se entregará en las dos lenguas oficiales.

El resultado de la beca, se expondrá públicamente en las dos lenguas oficiales.

#### 7. Tribunal/Comité de Selección.

El tribunal será nombrado por el Ayuntamiento de San Sebastián. Se constituirá de la siguiente manera:

– Director/a del Área de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián, o persona en quien delegue.

– Dos personas expertas en investigación en Ciencias Sociales y feminismos.

– Una representante del Foro de la Mujer y Ciudad.

– Una técnica de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián con funciones de secretaria técnica con voz y voto.

El Comité de selección podrá dejar desierta la convocatoria en el caso de que ninguna propuesta alcance el interés o la calidad necesaria.

El Comité de selección podrá pedir informes a diferentes departamentos municipales si lo valora necesario.

#### 8. Selección de candidaturas y criterios de valoración.

El Comité de selección valorará especialmente conocimientos, formación y experiencia de la persona o personas del grupo solicitante en la realización de trabajos de investigación, así como su capacidad de concreción y expresión, sus posibilidades de dedicación al trabajo objeto de la beca, y el interés y enfoque de la propuesta del trabajo de investigación. Para ello, el Comité de selección tendrá en cuenta los siguientes criterios de valoración, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos:

A) Calidad global del trabajo de investigación: hasta 70 puntos.

– Planteamiento del proyecto de investigación (hasta 20 puntos).

– Representatividad y pertinencia de las historias que se propone recoger (hasta 15 puntos).

– Claridad y viabilidad del trabajo de investigación, incluida la metodología y el cronograma (hasta 15 puntos).

– La viabilidad técnica y económica, y originalidad de la propuesta de visibilización en la ciudad de los resultados de la investigación (hasta 20 puntos).

B) Trayectoria, experiencia y formación en materia de igualdad de mujeres y hombres de la persona o personas que desarrollen el trabajo: hasta 20 puntos.

C) La realización de los trabajos de investigación en euskera: hasta 5 puntos.

D) Propuesta realizada por una mujer o grupo de mujeres: hasta 5 puntos.

En todo caso, las propuestas deberán tener incorporada la perspectiva feminista o de género, siendo un criterio excluyente.

Las propuestas que no alcancen un mínimo de 50 puntos serán desestimadas.

Aurrez aukeratutako hautagaiei elkarriketa bat izateko hots egingo zaie, egindako proposamena azaldu eta defendatzeko bidea izan dezaten.

Elkarriketan, eskatzaileak edo taldearen koordinazioa bere gain hartzen duenak, aurkeztutako memoria edo proposamena azaldu eta defendatuko du. Ikerlanaren emaitzen eta ikerlana burutzeko bideragarritasunaren arabera baloratuko da memoria edo proposamenaren kalitatea. Batzordeak galderak egin ditzake azaldutakoari buruz, bekaren xedeari buruz eta bekan baloratutako alderdiei buruz.

#### 9. Ebazpena.

Hautaketa batzordeak, balorazioa aintzakotzat hartu, eta esleipen proposamen bat egingo du. Esleipen proposamen horretan, aukeratutako pertsona edo taldea nor den adieraziko du eta ordezkoen zerrenda jasoko du, aukeratutako pertsonak edo taldeak uko egiten badio ere; orobat, baztertutako eskaerak jasoko ditu, zergatik utzi diren hala zehaztuta; hala badagokio, deialdia hutsik utziko du.

Hautaketa batzordearen proposamen hori Gobernu Batzarri bidaliko zaio, eta hark esanbidezko ebazpen bat emango du, beka ematearena edo, hala badagokio, deialdia hutsik uztearena. Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaio pertsona edo talde onuradunari, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere argitaratuko da.

Erabakitze eta erabakitakoa jakinarazteko sei hilabete izango dira gehienez, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Denbora hori pasa eta erabakia dena delako pertsonari jakinarazi ez bazaio, beka eskaera atzera bota dela jotzeko bidea izango da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44.1 artikuluan jartzen duen bezala.

#### 10. Beste diru laguntza eta laguntza batzuekin bateraezina izatea.

Oinarri hauetan aurreikusitako beka ez dago bateratzerik xede bera izan eta beste erakunde publiko nahiz pribatu batek emandako edo eman dezakeen beste beka, diru laguntza edo bestelako laguntza batzuekin.

#### 11. Onuradunen betebeharrak.

– Emandako beka onartzea. Hala, beka eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek –pertsona nahiz talde– bekari beren-beregi eta idatziz uko egin ez badiote, beka onartu egin dutela esan nahiko du.

– Eman den xede hartarako erabiltzea beka, eta, hartarako zehaztuko den egutegiaren arabera, egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri ematea Donostiako Udalarari, Donostiako Udalak onetsi egin behar ditu-eta egindako lanak eta lortutako emaitzak.

– Emandako beka motarekin bat datorren ikerlana egitea, euskaraz eta/edo gaztelaniaz.

– Donostiako Udalaren laguntza izan dela adieraztea egindako lanaren argitalpenean eta publizitate guztietan, hala behar denean.

– Diruz lagundutako ikerlanaren eta ikus-entzunezko fitxategien kopia bana ematea, euskarri informatikoan, Udalarari. Lana behar bezala hedatuko da, Udalak egokitzen jotzen dituen bideetan, herritarrak sentsibilizatzen laguntzeko eta bekadunen etorkizuneko garapen profesionala sustatzeko eta laguntzeko. Lanaren egileak beti aipatu behar dira eta erabat bete beharko da jabetza intelektualerako eskubidea arautzen duen araudia.

Las candidaturas preseleccionadas podrán ser convocadas a una entrevista en la que podrán exponer y defender su propuesta.

En la entrevista la persona solicitante o persona que asume la coordinación del trabajo en grupo, deberá hacer una exposición y defensa de la memoria o propuesta presentada, valorándose la calidad de la misma en base a los resultados del trabajo de investigación y a la viabilidad de la conclusión del mismo. El Comité podrá formular preguntas sobre lo expuesto, sobre el objeto de la beca y sobre los aspectos valorados en la misma.

#### 9. Resolución.

El Comité de Selección, en función de la valoración efectuada, elevará una propuesta de adjudicación en la que conste la persona o agrupación seleccionada así como una relación de solicitudes suplentes, para el caso de que se produzca alguna renuncia por parte de la persona o agrupación beneficiaria y una relación de solicitudes excluidas precisando la causa de la exclusión y, en su caso, la declaración de desierta de la convocatoria.

La propuesta de adjudicación del Comité de Selección será elevada a Junta de Gobierno, quien dictará Resolución expresa de concesión de la beca así como, en su caso, declaración de desierta de la convocatoria. La resolución será notificada individualmente a la persona o agrupación de personas beneficiarias así como publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

El plazo máximo para resolver y notificar la Resolución será de seis meses a contar desde el día siguiente al de la fecha de publicación de las presente Bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la persona o agrupaciones de personas Resolución alguna, podrá entenderse desestimada la petición de beca, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### 10. Incompatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

La beca prevista en las presentes Bases será incompatible con aquellas otras becas, subvenciones o ayudas que, teniendo el mismo fin, pudieran o hayan podido ser otorgadas por cualquier institución pública o privada.

#### 11. Obligaciones de las personas beneficiarias.

– Aceptar la beca concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la beca la persona o grupo de personas no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

– Utilizar la beca para el concreto destino para el que ha sido concedida e informar al Ayuntamiento de San Sebastián, conforme al calendario que se concretará al efecto, sobre la labor realizada y los resultados obtenidos, los cuales deberán recibir su conformidad o visto bueno.

– Elaborar, en euskera y/o castellano, un trabajo de investigación que responda adecuadamente al objeto del tipo de beca concedida.

– Hacer constar, en la publicación y cuanta publicidad se efectúe del trabajo realizado, la colaboración del Ayuntamiento de San Sebastián, en los casos en los cuales sea necesario.

– Se entregará una copia del trabajo de investigación subvencionado y los archivos audio- visuales de la investigación, en soporte informático, al Ayuntamiento de San Sebastián. El trabajo será objeto de la debida difusión en los canales que el Ayuntamiento estime más adecuados con el fin de contribuir a la sensibilización de la ciudadanía y promover y apoyar el futuro desarrollo profesional de la(s) persona(s) becada(s), y siempre con la correspondiente cita de la autoría del trabajo y el pleno respeto a la normativa reguladora del derecho de propiedad intelectual.

**12. Bekaren iraupena.**

Bekak 6 hilabete iraungo du, deialdiaren ebazpena jakinarazten den unetik aurrera.

**13. Finantzabidea eta beka ordaintzea.**

Beka 15.000 eurokoa izango da. Diru horri dagozkion atxikipenak egin beharko zaizkio, PFEZaren gaineko arauak jartzen dutena aintzakotzat hartuta, eta bidezko diren gainerako zergak ere kendu behar dira.

Hiru zatitan ordainduko da: lehenengoa, ebatzi bezain laster (%50); bigarrena, lehenengo lau hilabeteak igaro ondoren egindako ikerlanaren lehen informazioa ontzat ematean (% 25); eta hirugarrena, bekaren helburu den azterlana jaso eta baloratuta koan (%25).

**14. Txostenak eta jarraipen bilerak.**

Epaimahaiko bi kidek ikerlanaren jarraipena egingo dute.

Horretarako, txosten bat aurkeztuko zaio Udalari ikerlanarekin hasi eta lau bat hilabetera. Era berean, lau hilabetera, bilera edo elkarrizketa bat egingo da ordura arte egindako lanaren berri jakiteko.

Era berean, tutoretzak egiteko aukera ere izango da.

Betebeharrak bete ezean, beka jaso duen pertsonak itzuli egin beharko du ordu arte jasotako diru guztia.

**15. Argitaratzea.**

Lan originalak aurkeztu behar dira, lehen argitaratu gabekoak. Lehen saritutako lanik, itzulpenik eta moldaketarik ere ez da onartuko.

Udalak ikerlana argitaratu ahal izango du, zati bat edo osoa, formaturik egokienean (liburua, mapa, «mugarrien» bidez ikusgai jartzea emakumeen historia eta ekarriak nahiz lekuak).

**16. Aukeratzen ez diren proposamenak jasotzea.**

Beka jaso ez duten proiektuak Donostiako Udalaren Berdintasun Saileko bulegoan jaso ahal izango dira, egileak berak edo baimendutako pertsona batek.

**17. Oinarriak onartzea.**

Deialdi honetara aurkezteak oinarri hauetako baldintza guztiak onartzea esan nahi du. Oinarri hauetan jaso gabeko egoeraren bat gertatuz gero, epaimahaiari egokituko zaio dagokion erabakia hartzea.

**18. Baldintzak ez betetzea eta dirua itzultzeko eta dago-kion zigorra jartzeko prozedurak.**

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzeko araudiak jasotako egoeraren bat gertatuz gero, jasotako diru kopurua eta beka jaso zen unetik itzulketa egin behar dela erabakitzen den unera bitarteko berandutze interesak itzuli beharko dira. Dirua itzultzeko, diru laguntzen gaineko legeak eta hura garatzeko araudiak horren inguruan xedatutakoa aplikatuko da.

Era berean, Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak jasotako ekintzak eta ez-egiteak ere diru laguntzen arloko administrazio arau-hausteak dira, eta esandako legeak eta haren araudiak jarritako prozeduraren arabera zigortuko dira, baita zabarkeriak ere.

**12. Duración de la Beca.**

La beca tendrá una duración de 6 meses a contar desde el momento de la notificación de la resolución de la convocatoria.

**13. Financiación y Pagos de la Beca.**

La beca estará dotada con una cantidad de 15.000 euros. Dicho importe estará sujeto a las retenciones que procedan, de conformidad con lo establecido en la normativa reguladora de IRPF, así como al resto de impuestos que corresponda.

El pago se hará efectivo en tres partes: el primer pago (50%), inmediatamente después de su resolución; el segundo pago (25%), una vez valorada positivamente la primera información del trabajo de investigación realizado transcurridos los primeros cuatro meses, y el tercer pago (25%), una vez recibido y valorado el trabajo objeto de la beca.

**14. Informes y Reuniones de seguimiento.**

Dos personas integrantes del Tribunal realizarán el seguimiento del trabajo de investigación.

Con ese fin, se entregará al Ayuntamiento un informe-memoria del mismo a los cuatro meses de iniciar el trabajo de investigación. A los cuatro meses, además, se realizará una reunión-entrevista para conocer los pasos dados hasta el momento.

Así mismo, se ofrecerá la posibilidad de realizar tutorías.

En caso de incumplimiento de las obligaciones, la(s) persona(s) beneficiaria(s) de la beca devolverá(n) las cantidades percibidas hasta el momento.

**15. Publicación.**

Se presentarán trabajos originales, no publicados con anterioridad. No se admitirán trabajos anteriormente premiados, ni traducciones, ni modificaciones.

El Ayuntamiento se reserva el derecho de publicar el trabajo de investigación, sea de forma parcial o íntegramente y de la manera más conveniente posible, ya sea en formato libro, mapa, visibilización de las historias y aportaciones de las mujeres y lugares mediante «hitos».

**16. Recogida de propuestas no seleccionadas.**

Los proyectos no beneficiados con la beca, podrán ser recogidos en la oficina del Negociado de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián, sea en persona o a través de autorización expresa.

**17. Aceptación de las bases.**

La presentación a esta convocatoria supone aceptar la totalidad de las bases. Ante cualquier situación no contemplada en estas bases, será el tribunal quien decida.

**18. Incumplimiento, procedimiento de reintegro y procedimiento sancionador.**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la beca hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en la Ley 38/2003 General de Subvención y su Reglamento de desarrollo. El procedimiento de reintegro se regirá por lo dispuesto al efecto por la citada Ley de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo.

Asimismo, constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en la Ley 38/2003 General de Subvenciones, y serán sancionables incluso a título de simple negligencia conforme al procedimiento regulado en la citada norma y su reglamento de desarrollo.

19. *Helegiteak.*

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa sar daiteke deialdia onartu duen organoan, hilabete baino lehen, edo zuzenean Administrazioarekiko Auzitegien Epaitegira jo eta han sartu helegitea, bi hilabete baino lehen.

Oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira bi epe horiek.

Donostia, 2015eko martxoaren 13a.—Silvia Carballo Paz,  
Berdintasun Bulegoko atalburua. (2486)

19. *Recursos.*

Contra las presentes bases podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases.

San Sebastián, a 13 de marzo de 2015.—La responsable del  
Negociado de Igualdad, Silvia Carballo Paz. (2486)